

LIBURU BERRIAK.

ARGI-BIDE TXIKIA. Zugasti apaizarena.

140 orrialdeko liburutxo polita. Umetxu-entzako apartekoa. Emen ikasiko dute gure aurtxoek Jainkoarenganako eta gizon zitzo egiteko bidea. Goxoa oso liburu ori. Euskalerriko ume guzti guztiek euki bear luketen liburua. Askok esaten dute ez dagola umetxoentzat ezer euskeraz; eta naiko egia, tamalez. Oraingo onek beintzat bete du txu-foa ezeze Zulo aundi bat ere. Betozkigu garain onen olako liburutxo polit ugari eta ez da geiago esan al izango Euskalerrian "aurtxoentzako libururik ez dala egiten".

Or arkituko dituzte umetxoak goizeko ta gabeko otoitzak. Or ikasiko dute Meza Santua bear bezela entzuten; eta Jainkoa eta Ama Birjiña bear bezela maite maite izaten. Euskera gozo gozoa dauka gainera, eta abesti-xorta ere bai atzekaldean.

Ez galestia ere gainera: 18 laurleko. Artu eta zeuk ikusi. Esango didazu oker ote nabillen esandakoak esaten.

Zorionak eta URRENGOAN EKARRI ASKC

P.M (ofm).